BILKURAREN AKTA LABURTUA
KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA
2026KO MARTXOAREN 4EKO ASTEAZKENA

Hor ziren: Christian Devèze jauna, Auzapeza, Eliane Aizpuru anderea, Jean-Noël Magis jauna, Yolande Huguenard anderea, Didier Irastorza jauna, Robert Poulou jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Vincent Goytino jauna, auzapezordeak, Corinne Othatceguy anderea (19:30ak arte), Jean-Paul Eyherachar jauna, Isabelle Ayerbe anderea, Roger Barbier jauna, Bernadette Remeau anderea, Sébastien Carre jauna, Joana Lacarra anderea, Jean-Pierre Gogny jauna, François Hayet jauna, Bertrand Coin jauna, Peio Etxeleku jauna, Jean-François Lacosta jauna, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Amaia Beyrie anderea (20:14tik goiti), Alain Boscq jauna, Xabier Heguy jauna, herriko kontseilariak.
Falta ziren edo Barkatuak: Corinne Othatceguy anderea (19:30tik goiti), Jean-Jacques Lassus jauna, Jean-Paul Alaman jauna, Amaia Beyrie anderea (20:14 arte), herriko kontseilariak.
Ahalordeak: Corinne Othatceguy andereak Yolande Huguenard andereari eman dio bere ahalordea (19:30tik goiti); Jean-Jacques Lassus jaunak Christian Devèze jaunari; Jean-Paul Alaman jaunak Philippe Bacardatz jaunari.

- Bilkuraren idazkariaren izendapena.

Aho batez, Joana Lacarra anderea izendatzen da bilkuraren idazkari.

19:30ak arte:
Herriko kontseilari kopurua: 28
Hor diren herriko kontseilariak: 25
Ahalorde kopurua: 2
Falta diren kopurua: 2

19:30etik 20:14ra:
Herriko kontseilari kopurua: 28
Hor diren herriko kontseilariak: 24
Ahalorde kopurua: 3
Falta diren kopurua: 3

20:14tik goiti:
Herriko kontseilari kopurua: 28
Hor diren herriko kontseilariak: 25
Ahalorde kopurua: 3
Falta ziren kopurua: 3

- GAI ZERRENDA

001 – 2025eko abenduaren 2ko Herriko Kontseiluaren bilkuraren aktaren onartzea. 3
002 – Auzapez jaunak Herriko Kontseiluaren delegazioz hartu erabakien komunikazioa. 3
003 – Merkuriako bidea: lur baten uztea. 3
004 – Burgachiloako bidea: lur baten erosketa. 5
005 – Ur onen patarra: lursailaren eskualdatzea. 5
006 – Gaindegiako bidea: euri uren sare zor baten sortzea. 6
007 – SCI Akikam: lurraren eskualdatze erregulartzea. 7
008 – Oihanburua bidea: lurraren eskualdatze erregulartzea. 7
009 – Makeako bidea: lurraren eskualdatze erregulartzea. 8
010 – APGL: SIVRAren aztertzeentzat hitzarmena berritzea, harpidetzatik kanpo. 8
011-A – TE64: Paxkaleku biribilguneko sareen lurperatzeko hitzarmena – landa-elektrifikazioa – EP berritzea 2026 (Sdepa). 10
011-B – TE64: Paxkaleku biribilguneko sareen lurperatzeko hitzarmena – landa-elektrifikazioa – 8. artikuluaren programa 2026. 11
012 – EHE:): Obrak kontrolatzeko zerbitzu mutualizatuari kide izatea urbanismo baimenentzat. 12
013 – Lorategi proiektua: sare zorra eta sarbide baten sortzeko hitzarmena 14
014 – Merkatu ez sedentarioa: araudiaren berrikustea. 18
015 – Aisialdi zentroa : San Mixel Garikoitz kolegioko gelen esku uztea. 20
016 – Kanboko Izarra : ohiz kanpoko diru laguntza baten emaitea. 21
017 – GEUZ: 2026ko diru-laguntzaren aitzinatzea. 23
018 – Korrika 2026: Herriaren finantza parte-hartzea. 23
019 – Goi mailako irakaskuntzako herriko dirulaguntzen emaitea, 2025-2026 ikasturtearentzat. 24
020 – Saltegi kudeatzailearendako diru laguntza eskaera. 25
021 – Langileak : Agente bat EHEren esku uzteko hitzarmena. 27

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Maria Aristizabal andereak auzapezorde eta herriko kontseilari karguei uko egin diela, 2025eko abenduaren 4tik goiti eraginkorra, eta Prefekturak balioztatua.
Zehazten du, hauteskunde kodearen L270 artikuluaren arabera, haren ordezkatzea zerrendako ondokoak bermatzen duela.
Auzapez jaunak adierazten du Bertrand Coin jaunari eskatu diola, eta honek Herriko Kontseiluan sartzea onartu duela.
Maria Aristizabal andereari bere engaiamenduagatik eskerrak ematen dizkio, eta Bertrand Coin jauna biltzarrean hartzen du.
Auzapez jaunak gogorarazten du instalazio honek Herriko Kontseiluaren osaera osoa berrezartzen duela, mandatu honen bukaeran.
Auzapez jaunak Marie Carmen Gonzalez andereari omenaldi egiten dio, euskal kulturaren eta birazkatzearen aldeko engaiamendua eta herriko bizitzan izan duen inplikazioa azpimarratuz. Herriko Kontseiluaren babesa adierazten dio bere familiari, eta isilune minutu bat proposatzen du.

001 – 2025eko abenduaren 2ko Herriko Kontseiluaren bilkuraren aktaren onartzea.

DELIBERAMENDUA:

2025eko abenduaren 2ko bilkuraren akta Herriko Kontseiluaren onarpenari aurkezten zaio.

Herriko Kontseiluak, deliberatu ondoan, aho batez:

ONARTZEN DU 2025eko abenduaren 2ko Herriko Kontseiluaren bilkuraren akta.

002 – Auzapez jaunak Herriko Kontseiluaren delegazioz hartu erabakien komunikazioa.

DELIBERAMENDUA:

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen aplikazioan, Auzapez jaunak 2020ko ekainaren 11ko Herriko Kontseiluaren deliberamenduaren bidez emandako delegazioen arabera hartu erabakien berri ematen du:

-Hilerriko kontzesioak emateari eta berreskuratzeari buruzko erabakiak, 2025eko azaroaren 16tik 2026ko otsailaren 13ra;

-2025eko abenduaren 22a: jatetxe-tiketen hornikuntza eta banaketa merkatuaren sinadura.

-2026ko urtarrilaren 16a: ezker pareteko berreraikitze merkatuaren gehigarrien sinadura.

Herriko Kontseiluak, aho batez:

KONTUAN HARTZEN DU Auzapezak Herriko Kontseiluaren delegazioz hartu erabakiak.

003 – Merkuriako bidea: lur baten uztea.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, biltzarrari azaltzen dio Thierry Labat jaunak herrian lur jabego bat duela, eta honen sarbidea segurtatu nahi duela, baita eraikinaren inguruko lur pixka bat ere eskuratu, hura ukitzen duten hainbat herriko bideren bazterrei dagokien zati baten erosketaren bidez. Lurra Merkuriako bidea 1ean kokatzen da.

Aipatutako eremua, gutxi gorabehera 73 m²koa, bidearen garraio zerbitzu eta zirkulazio funtzioetarako erabiltzen ez denez, desklasatu daiteke, aitzinetiko herri ikerketarik gabe, Bide Kodearen L.141-3 artikuluaren arabera.

Zehazten da azalera zehazki mugatu behar dela, eta geometrari dagozkion gastuak erosleak ordainduko dituela.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari eskatzen dio eragiketa honi buruz bere iritzia agertzeko.

Ikusirik Estatuaren Ondasunen Zuzendaritzaren 2025eko azaroaren 24ko iritzia, uztearen merkatu balioa 12.000 €tan finkatzen dula.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondoan, aho batez:

BALIOZTATZEN DU aipatutako eremuaren desklasatzea eta salmenta, erantsi den planaren arabera, gutxi gorabehera 73 m²koa, Thierry Labat jaunari, 12.000 €ren truke.

ZEHAZTEN DU gastu guztiak, geometrarenak barne, erosleak ordainduko dituela.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna eragiketa honetarako beharrezko formalitate guztiak egiteko eta harekin lotutako agiri guztiak sinatzeko.

ESKU-HARTZEAK

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetzen du 73 m²ko lur baten uztearen zenbatekoa, 12.000 €tan finkatua, gora iruditzen zaiola.

Jean-Noël Magis jaunak zehazten du eraikigarria den lur bati buruz ari dela, Domaines delako estimazioan oinarritutako prezioa, eta onartzen du zenbatekoa altua irudi daitekeela.

Philippe Bacardatz jaunak herriko praktiken koherentziari buruz galdetzen du, euro sinbolikoan egindako erosketak eta prezio altuagoetan egindako uzteak kontrastez.

Auzapez jaunak adierazten du uzteak Domaines delakoen ebaluazioaren arabera egiten direla, eta ezin direla herriak libreki finkatu.
Zehazten du euro sinbolikoko uzteak, oro har, ordainekin (obrak edo egokitzapenak) egiten direla, kasu honetan hala ez dena. Aipatutako lurraren testuinguru historikoa ere gogorarazten du eta ebaluaziotik alde ezin daitekeela baieztatzen du, lurraren izaera eraikigarria dela eta.

Peio Etxeleku jaunak akta sinatzeko dataren berri galdetzen du.

Auzapez jaunak adierazten du oraindik ez duela egutegi zehatzik.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak zehazten du uzte akta administratibo bidez egin daitekeela.

Auzapez jaunak adierazten du prozedura ahalik eta epe laburrenean burutuko dela.

004 – Burgachiloako bidea: lur baten erosketa.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, Herriko Kontseiluari azaltzen dio Amaia Baltazar andereak herriari BB 131 eta 132 lursailak uzteko prest dela, gutxi gorabehera 58 m²koak.

Lursail hauek, Burgachiloako bidean kokatuak, herriari aipatu bidea zabaltzea ahalbidetuko diote, zirkulazioa errexteko.

Truke gisa, herriak laborantzako itxura duen hesi bat ezarriko du, zurezko zutoinak eta ardientzako hesia, 2 zutabe eta xeila baten kokatzeko betoizko atari bat. Landaketak ere eginen dira lursailan, baita bazterren segurtasun-lanak: lurra egokituko da natur lurra berreskuratzeko, gutxi gorabehera 2,50 m zabalerako, Baltazar familiaren jabetzaren barnean.
Lan hauen kostua 7.000 €takoa da.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

BALIOZTATZEN DU BB 131 eta 132 lursailen erosketa eta jabego publikora eramatea, gutxi gorabehera 58 m²koak, Amaia Baltazar andereari, herriak eginen dituen lanen truke: hesia, landaketak, eta bazterren segurtasuna, 7.000 €tan.

ZEHAZTEN DU gastu guztiak herriaren kontura izanen direla.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna eragiketa honetarako beharrezko formalitate guztiak egiteko eta harekin lotutako agiri guztiak sinatzeko.

005 – Ur onen patarra: lursailaren eskualdatzea.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, biltzarrari azaltzen dio Habitat Sud Atlantique-k herriari AW 50 lursaila uzteko eskatu diola, 8.672 m²koa, Ur onen patarran kokatua, Nivaldia jabetzaren mendebaldeko zatian.

Herria eroskera honen alde da euro sinbolikoan, lursail hori eremu hezean kokatua baita eta bere egoeran mantendu beharreko natura-eremua osatzen baitu.

Herriko Kontseiluari eskatzen dio eragiketa honen printzipioari buruz mintzatzeko.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU AW 50 lursailaren erosketaren printzipioa euro sinbolikoan, 8.672 m²ko azalerakoa, Ur onen patarran kokatua.

BALIOZTATZEN DU gastu guztiak (akta, geometroa...) Habitat Sud Atlantiquek ordainduko dituela.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna eragiketa honetarako beharrezko formalitate guztiak egiteko eta harekin lotutako agiri guztiak sinatzeko.

ESKU-HARTZEAK

Argitxu Hiriart-Urruty andereak adierazten du HSA alokatzaileak lur-zati honetaz utzi nahi duela, gutxi baliagarritzat jotzen baitu.

Auzapez jaunak zehazten du, funtsean, jabekidetasunari buruz ari dela.
Jean-Noël Magis jaunak baieztatzen du jabekidetasun eremu horren mantentzetik arindu nahi duela. Gogorarazten du gunea etxebizitza sozialari dagokiola, eta eragiketaren xedea lurraren kudeaketa herriari eskualdatzea dela, jabekidetasun karga honetatik arintzeko.

006 – Gaindegiako bidea: euri uren sare zor baten sortzea.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, biltzarrari azaltzen dio Michel Erreca jaunaren jabetzak, Gaindegiako bidean kokatuak, herriari euri-uren isurbide bat ezartzea ahalbidetuko liokeela.

Herriko Kontseiluari eskatzen zaio zortasun honen ezartzeari buruz mintzatzeko, BM 130 eta BM 137 lursailak (Michel Erreca jaunaren jabetza) kargatuz, BM 26 herriko lursailaren truke.

Zehazten da zor hitzarmen bat, deliberamendu honi erantsia, ezarriko dela sare honen egokitzapenaren kari baldintza juridiko, tekniko eta finantzarioak zehazteko.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU dohainik, euri-uren isurbide zortasunaren ezartzea, BM 130 eta BM 137 lursailak kargatuz, Michel Erreca jaunarenak, BM 26 herriko lursailaren truke, erantsi den planaren arabera.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna eragiketa honetarako beharrezko formalitate guztiak egiteko, erantsi den zortasun-hitzarmena sinatzeko eta harekin lotutako agiri guztiak sinatzeko.

007 – SCI Akikam: lurraren eskualdatze erregulartzea.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, Herriko Kontseiluari gogorarazten dio herriak AD 130 lursaila erosi nahi izan zuela, 50 m²koa, duela urte batzuk SC Akicamek egindako uztea erregularizatzeko, Iguzkian auzoaren ateratzean ikusgarritasuna hobetzeko Alexandre Camino doktorearen etorbidean.

2013ko martxoaren 4ko Herriko Kontseiluaren deliberamendu batean, SC Akicami eginiko erosketa hori dohainik erabaki zen. Dozierra Notarioaren etxean geratu zen zain.

Herriak uzte hau burutu nahi izan du, baina agertu da partzela hori hipoteka-inskripzio batez kargatua dela, zeinaren kentzea eskatu behar den. Kentze horren kostua 700 €takoa da.

Arazo hau konpontzeko, Herriko Kontseiluak 2025eko abenduaren 2an deliberamendu bat hartu zuen, baina bere idazketak nahasmena sortzen zuen, lursailak 700 €ko kostua zuela pentsarazten baitzuen, gehi 200 €ko erosketa aktaren gastuak. Beraz, argitu behar da uztea dohainik egiten dela, kentze eta aktaren gastuak herriak bere gain hartuz, 900 €ko guztizko batean (700 € + 200 €).

Kontuan hartuz SC Akicamek lursail hori herriari dohainik uztea onartzen duela, zaila da hipoteka-inskripzioen kentze-gastuak bere gain hartzeko eskatzea.

Kentze gastuak herriak bere gain hartuko ditu, 700 €, gehi erosketa aktaren gastuak, 200 €, guztira 900 €.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ERABAKITZEN DU hipoteka kentzea eta AD 130 lursailaren erosketa burutzea, 50 m²koa, SC Akicami dohainik, kentze gastuak 700 € + 200 € izanik, erosketa egintza notarialaren gastuei dagozkienak.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna eragiketa honetarako beharrezko formalitate guztiak egiteko eta harekin lotutako agiri guztiak sinatzeko.

008 – Oihanburua bidea: lurraren eskualdatze erregulartzea.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio gai zerrendako 8. puntua kentzen dela. Zehazten du hiru jabeetarik bik beren adostasuna kendu dutela erregularizazio eragiketari buruz. Adierazten du puntu hau ondoko Herriko Kontseilu batean berraurkeztuko dela.

009 – Makeako bidea: lurraren eskualdatze erregulartzea.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, gogorarazten du Makeako bidean egindako obren kari, bide horren zati bat zabaltzeko, herriak akordio bat hartu zuela Sylvie Mortet andereakin, BP 71, 72 eta 73 lursailen jabea.

Herriari berrematutako azalera osoa 687 m²takoa da.

Trukean, herriak laborantzako hesi bat ezarri du Mortet andereren jabetzaren luzeran, ezpondaren goiko aldean, baita jabetzarako sarbide bidearen estaldura ere, Louisette Montegut andereren jabetzarako ere balio duena.

Egindako lanen kostua 8.000 € HTtakoa da.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU BP 71, 72 eta 73 lursailen erosketa eta jabego publikora eramatea, gutxi gorabehera 687 m²koa, Mortet Sylvie andererena, herriak egindako lanen truke: hesia eta sarbide bidearen estaldura, 8.000 € HTtan.

ZEHAZTEN DU gastu administratibo guztiak herriaren kontura izanen direla.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna eragiketa honetarako beharrezko formalitate guztiak egiteko eta harekin lotutako agiri guztiak sinatzeko.

010 – APGL: SIVRAren aztertzeentzat hitzarmena berritzea, harpidetzatik kanpo.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, gogorarazten du 2020ko martxoaren 2ko Herriko Kontseiluaren deliberamenduaren bidez, herria APGL64ren Herri arteko Bide, Sare eta Egokitzapen Zerbitzuari (SIVRA) sartu zitzaiola, deliberamendu horrek Agentziaren Batzorde Sindikatuak finkatutako Zerbitzuaren Esku-hartze Erregelamendua onartu zuen.

Herri arteko Bide, Sare eta Egokitzapen Zerbitzuak sartutako elkargoei laguntza eskaintzen die espazio publikoen egokitzapenean, bideetan, arte obretan, gune berdeetan eta hainbat saretan. Oinarrizko kide izatean sartutako laguntza honek bideragarritasunaren lehen hurbilketa eta lehen finantza hurbilketa bat besterik ez du proposatzen.

APGLren urteko abonamendua 4.897 €takoa da Kanborentzat.

Gogorarazteko, abonamenditik kanpoko hitzarmen baten onarpenak APGLren teknikarien eskuragarritasuna Kanboko herriaren aldera osatzea ahalbidetzen du, era sinpleago eta azkarrago batean, maila txiki eta ertaineko proiektuetan, urtean 50 egun-erdiko erreserba baten arabera " ardurako" izeneko proiektuak teknikoki tratatzeko, prestazio horiek gehigarri gisa fakturatuko direlarik, egun-erdiko 315 €tan.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ERABAKITZEN DU Herri arteko Bide, Sare eta Egokitzapen Zerbitzuari (Tokiko Kudeaketa Agentzia Publikoa) jarraitzea deitzeko, herriko zerbitzuei laguntza emateko haren eskumeneko lan-eragiketen azterketa teknikoen burutzean, erantsi den eskuragarritasun hitzarmenaren proiektuaren baldintzen arabera.

ZEHAZTEN DU hitzarmen hau 2026ko abenduaren 31ra arte baliozkoa dela.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna aipatu hitzarmena eta harekin lotutako agiri guztiak sinatzeko.

ESKU-HARTZEAK

Auzapez jaunak adierazten du hitzarmenaren baldintzak, orokorki, lehen indarrean zeudenen antzekoak direla.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak zehazten du hasieran aurreikusitako 4 urteko iraupena 2 urtera murriztu dela. Adierazten du, halaber, baldintza finantzarioak gorantz berrikusi direla.

Philippe Bacardatz jaunak aitzineko hitzarmenaren datari buruz galdetzen du, eta herriko hauteskundeen inguruan engaiamenduak sinatzearen zailtasuna azpimarratzen du, etorkizuneko taldea lot dezaketenak.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak zehazten du hasierako hitzarmena 2020ko martxoan hartua izanan zela, eta abonamendu orokorra prestazio gehigarritik bereizten du.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak aitzineko hitzarmenaren denbora-tarteari buruz argibideak eskatzen ditu.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak adierazten du 4 urteko iraupena proposatu zela, eta bere murriztea agintaldi aldaketa kontuan hartzeko izan zela.

Auzapez jaunak abian diren obren existentzia azpimarratzen du, hitzarmenaren jarraipena beharrezko egiten duena.

Jean-Noël Magis jaunak zehazten du batez ere espazio publikoaren egokitzapenari lotutako azterketak direla.

Peio Etxeleku jaunak galdetzen du engaiamendua benetako kontsumora mugatzeko aukerari buruz, formalki berritu gabe.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak adierazten du ez dela gutxieneko kontsumorik, eta 2026an edozein esku-hartzetarako hitzarmen berri bat beharrezkoa dela.

Peio Etxeleku jaunak hitzarmenaren iraupena 2026ra mugatzea proposatzen du.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak baieztatzen du aukera hau bideragarria dela.

Auzapez jaunak iraupena urte batera murrizteko aldeko agertzen da, une honetako beharrak estaltzeko eta etorkizuneko herri-taldeari aukera uzteko.

Herriko Kontseiluak 2026 urtera mugatutako hitzarmen baten printzipioa baliozkotzen du.

011-A – TE64: Paxkaleku biribilguneko sareen lurperatzeko hitzarmena – landa-elektrifikazioa – EP berritzea 2026 (Sdepa).

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eskatu diola RD10 departamendu bidearen biribilgune proiektuari lotutako argiteria publikoaren lanen azterketa egiteko.

Energia Lurraldearen Lehendakariak herriari egin beharreko lanen kostu estimatiboaren berri eman dio, SDEL-CETELEC Taldeari esleitua.

Magis jaunak zehazten du lan hauek "EP berritzea (SDEPA) – 2026 berritzea" izeneko Landa Elektrifikazio Programan idatziko direla, eta Herriko Kontseiluari gastuaren zenbatekoa onartzea eta lan hauen finantzaketa bozkatzea proposatzen dio.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

BALIOZTATZEN DITU gorago zehaztutako lanak,

IZENDATZEN DU Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldea lan hauen egiteko,

ONARTZEN DU burutu beharreko lan eta gastuen zenbatekoa, honela banatuta:

Lanen zenbatekoa (BEZa barne) ..... 78 171,98 €
Obra-zuzendaritza laguntza, obra-zuzendaritza eta ustekabekoak..... 8 598,92 €
TE64ren kudeaketa gastuak..... 3 908,60 €
GUZTIRA ..... 90 679,50 €

ONARTZEN DU eragiketaren aurreikusitako finantza plana, honela banatuta:

Sindikatuaren parte-hartzea..... 6 000,00 €
FCTVA (TE64k berreskuratu behar duena)..... 12 823,33 €
Herriaren parte-hartzea lanetan, diru proprioetatik finantzatua ..... 67 947,57 €

Herriaren parte-hartzea kudeaketa gastuetan (diru proprioetatik)..... 3 908,60 €
GUZTIRA ..... 90 679,50 €

Herriaren azken parte-hartzea lanen behin betiko konturaren ondotik zehaztuko da.

Gainera, herriak bere parte-hartzea " diru proprioetatik" finantzatzen badu, TE64k herriari kontu-ordainketa bat edo gehiago eska diezaioke, egindako lanen arabera.

ONARTZEN DU menturazko zortasuna dohainik, herriko jabetza pribatuaren gainean.

011-B – TE64: Paxkaleku biribilguneko sareen lurperatzeko hitzarmena – landa-elektrifikazioa – 8. artikuluaren programa 2026.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eskatu diola RD10 departamendu-bidearen biribilgune-proiektuari lotutako BT sare publikoen lurperatzearen azterketa burutzeko.

Energia Lurraldearen Lehendakariak herriari egin beharreko lanen kostu estimatiboaren berri eman dio, SDEL/CETELEC Taldeari esleitua.

Magis jaunak zehazten du lan hauek "8. Artikulua (Baiona) 2026" izeneko Landa Elektrifikazio Programan inskribatuko direla, eta Herriko Kontseiluari gastuaren zenbatekoa onartzea eta lan hauen finantzaketa bozkatzea proposatzen dio.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

BALIOZTATZEN DITU gorago zehaztutako lanak,

IZENDATZEN DU Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldea lan hauen egiteko,

ONARTZEN DU burutu beharreko lan eta gastuen zenbatekoa, honela banatuta:

Lanen zenbatekoa (BEZa barne) ..... 158 040,80 €
Obra-zuzendaritza laguntza, obra-zuzendaritza eta ustekabekoak..... 17 384,48 €
Akta notarialak diru proprioetatik ..... 345,00 €
TE64ren kudeaketa gastuak..... 7 902,04 €
GUZTIRA ..... 183 672,32 €

ONARTZEN DU eragiketaren aurreikusitako finantza plana, honela banatuta:

Emakidadunaren parte-hartzea ..... 40 000,00 €
Sindikatuaren parte-hartzea ..... 40 000,00 €
TE64k aurrefinantzatutako BEZa..... 29 237,55 €

Herriaren parte-hartzea lanetan, diru proprioetatik ..... 66 532,73 €
Herriaren parte-hartzea kudeaketa gastuetan (diru proprioetatik)..... 7 902,04 €
GUZTIRA ..... 183 672,32 €

Herriaren azken parte-hartzea lanen behin betiko konturaren ondotik zehaztuko da.

Gainera, herriak bere parte-hartzea "diru proprioetatik" finantzatzen badu, TE64k herriari kontu-ordainketa bat edo gehiago eska diezaioke, egindako lanen arabera.

ONARTZEN DU menturazko zortasuna dohainik, herriko jabetza pribatuaren gainean.

ESKU-HARTZEAK

Philippe Bacardatz jaunak argiteria publikoari eta behe-tentsioari dagozkien lanen mugei buruz argibideak eskatzen ditu.

Jean-Noël Magis jaunak adierazten du lanek proiektuaren eremu osoa hartzen dutela.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak zehazten du eremuak biribilgunea eta sarbide-bide berria barne hartzen dituela.

Jean-Noël Magis jaunak baieztatzen du lanek aipatutako eremu osoa hartzen dutela.

012 – EHE:): Obrak kontrolatzeko zerbitzu mutualizatuari kide izatea urbanismo baimenentzat.

DELIBERAMENDUA:

Magis jaunak, auzapezordeak, azaltzen du:

Euskal Hirigune Elkargoak (EHE) gaur egun bere lurraldeko 99 herrien kontura bermatzen du lur-erabilera eta okupazio baimenen instrukzioa, 2017ko abenduaren 16ko Elkargoko Kontseiluaren deliberamenduaren bidez sortutako zerbitzu komun baten kari.

Dozierren kudeaketa erregulatzeko hitzarmenen aplikazioan, herriak eskaeren aurkezpen eta grabaketa fasean, baita erabakiaren hartze eta eskatzaileei jakinarazteko prozesuan ere, arduradun izaten jarraitzen dute.

Hirigintza baimenen instrukzio zerbitzuak burutzen dituen eginkizunen eta lanen konformitate kontrolaren eta jarraipenaren arteko lotura kontuan hartuz, 2021eko urriaren 2ko Elkargoko Kontseiluak aldeko iritzia eman zuen esperimentalki "konformitate kontrol" zerbitzu elkartu bat sortzeko Hazparneko Poloaren mailan.

Ordutik, Hazparneko Polotik kanpoko hainbat herrik zerbitzu horretaz baliatu nahi izan dute. Eskari horiei erantzuteko, 2023ko uztailaren 1eko Elkargoko Kontseiluak erabaki zuen zerbitzu komun horren esku-hartze eremua zabaltzea, hiru eginkizun hauen inguruan artikulatutako hitzarmen bat proposatuz:

1.motako eginkizuna: hirigintza baimen baten kari egindako obren kontrola;
2.motako eginkizuna: baimenik gabe egindako obren kontrola;
3.motako eginkizuna: obraren segimendua.

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, eta bereziki bere L. 5211-4-2 artikulua, emandako eskumenetatik kanpo, zerga propioko Herri arteko Lankidetzarako Establezimendu Publiko (EPCI) bati eta bere herrikide bati edo gehiagori zerbitzu komun bat ezartzea ahalbidetzen diena, eginkizun funtzional edo baliagarriak betetzeko, tartean herriaren edo Estatuaren izenean auzapezek hartu erabakien instrukzioa;

Ikusirik hirigintza kodea, eta bereziki hirigintza-egintzen instrukzioaren elkarketari dagozkion R. 410-5 eta R. 423-15 artikuluak, baita hirigintza-kodearen aurkako urrapenen egiaztatze-moduei dagozkien L. 480-1etik L. 480-5era eta L. 610-1etik L. 610-3ra bitarteko artikuluak, eta eraikuntza edo egokitzapen lanen bukaerari eta bilketari dagozkion R. 462-1 eta ondoko artikuluak;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoaren Elkargoko Kontseiluaren 2017ko abenduaren 16ko deliberamendua, lur-erabileraren eskubidearen baimenen instrukzio zerbitzu komun bat sortzen duena;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoaren Elkargoko Kontseiluaren 2021eko urriaren 2ko deliberamendua, "konformitate kontrol" zerbitzu elkartu bat esperimentalki eta Hazparneko Poloaren eremuan sortzea erabakitzen duena;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoaren Elkargoko Kontseiluaren 2023ko uztailaren 1eko deliberamendua, lanen bukaeraren eta jarraipenaren kontrolaren zerbitzu komunaren esku-hartze eremuaren zabaltzeari buruzkoa;

Ikusirik proposatutako baldintza finantzarioak eta hirigintza baimenei dagozkien konformitate-kontrol eta lanen jarraipen eragiketei buruzko hitzarmen-proiektua, erantsia;

Kontuan hartuz Euskal Hirigune Elkargoaren hirigintza baimenen instrukzio zerbitzuak betetzen dituen eginkizunen eta konformitate kontrol eta lanen jarraipen eragiketen arteko lotura;

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ALDEKO IRITZIA EMATEN DU lanen konformitate eta jarraipenaren kontrolerako zerbitzu komun honi kide izateari buruz;

ONARTZEN DITU erantsitako hitzarmenaren baldintzak eta dagozkion prezioak, zehaztuz kontrolak herriaren eskariz eginen direla, eta Elkargoak eskaerari erantzuteko duen ahalmenaren arabera;

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna edo bere ordezkaria aipatu hitzarmena sinatzeko;

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna edo bere ordezkaria deliberamendu honen aplikazioari dagozkion edozein gastu egiteko eta edozein erabaki hartzeko.

ESKU-HARTZEAK

Argitxu Hiriart-Urruty andereak esku-hartzeen finantzaketari buruz galdetzen du, bereziki baimenik gabeko lanen kasuan.

Jean-Noël Magis jaunak adierazten du prestazio hauek herriak finantzatzen dituela, EHEri esku-hartzeko eskatzen dionak.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetzen du nork bermatzen zituen lehen eginkizun hauek.

Jean-Noël Magis jaunak zehazten du herriko zerbitzuek, bereziki herriko poliziak, betetzen zituztela.

Auzapez jaunak adierazten du herriak jarraipena eta kontrola kanporatzea erabaki duela, EHEri konstatazio eta esku-hartzeetarako jotzeko.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak zehazten du esku-hartze hauek gaur egun zinpeko agenteek bermatzen dituztela, jabetza pribatuetan esku hartzeko gaitasuna dutenak, bereziki egoera zalantzagarrietan. Adierazten du herriko zerbitzuek, orain arte, jabego publikotik esku hartzen zutela, hirigintzan juramendurik ez zutelako.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak aipatutako urratzeen kopuruari buruz galdetzen du.

Zerbitzu Teknikoen Zuzendariak adierazten du ugariak direla, eta bereziki baimenik gabeko eraikuntzei dagozkiela, laborantza edo oihan eremuetan, baita baimenen ez-konformitateei ere. Zehazten du kanporatutako esku-hartzeek dozier konplexu edo sentikorrak jotzen dituztela.

Peio Etxeleku jaunak herriko agenteak juramenduarazteko aukerari buruz galdetzen du.

Auzapez jaunak adierazten du aukera hori ez dela aztertzen, kanpoko esku-hartze batek egoera sentikorretan neutraltasuna eta distantzia bermatzeko duen interesa azpimarratuz.

Jean-Noël Magis jaunak azpimarratzen du agente espezializatuetara jotzeak prozedurak segurtatzea ahalbidetzen duela, bereziki auzi-agirien idazketan akatsak saihestuz.

013 – Lorategi proiektua: sare zorra eta sarbide baten sortzeko hitzarmena

DELIBERAMENDUA:

Xedea: "LORATEGI" higiezin operazioa (Oihanburua bidea) – AH 55 eta AH 5 (partez) herriko lursailen gaineko bide-zortasun eta trepeta konbentzionala eratzea – Onuradunak bakarrik finantzatutako bide eta sare obren burutze eta transferentzia hitzarmen baten onartzea – Sinatzeko baimena.

Herriko Kontseiluak,

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, bereziki L.2121-29 eta L.2122-21 artikuluak;
Ikusirik Hirigintza Kodea, bereziki L.332-15 artikulua;

Ikusirik Hirigintza Kodea, bereziki L.332-30 artikulua (parte-hartze ilegalen kasuan errepikapen akzioa);

Ikusirik Pertsona Publikoen Jabetza Orokorraren Kodea, bereziki L.2111-1 artikulua;

Ikusirik Bide Kodea, bereziki L.141-3 artikulua;

Ikusirik Kode Zibila, zortasunei dagokienez, bereziki 637. eta ondoko artikuluak (hitzarmenezko zorrrak);

Ikusirik tokiko hirigintzako plana (PLU);

Ikusirik "LORATEGI" higiezin operazioaren dozierra, Oihanburua bidean kokatua;

Ikusirik erantsitako planak, AH 55 eta AH 5 (partez) herriko lursailetan bidearen eta sareen kokapena identifikatzen dutenak;

"LORATEGI" operazioak sarbide baten sortzea eta sareen (bide eta hainbat sare) ezartzea eskatzen du, esklusiboki bere zerbitzurako beharrezkoak direnak.

Obra hauen kokagunea herriaren lursailan da, AH 55 eta AH 5 (partez) kadastra sailak, herriaren jabetza pribatukoak.

Hirigintza Kodearen L.332-15 artikuluaren aplikazioan, herriak hirigintza baimenaren onuradunari eragiketarako beharrezko ekipamendu propioen burutzea eta finantzaketa ezar diezaioke.

Bidearen herriko bidesarean geroko sailkapenaren zain, komeni da igarobide eta lurpeko zortasun kontratuzko bat eratzea "LORATEGI" proiektuaren kokagunean, fundo nagusiarentzat.

Zor honek aldi baterakoa izateko eta zuzenbidez iraungitzeko xedea du, bidea publikoaren erabilerara bideratzean eta/edo herriko bidesarean sailkatzean, ondoren herriko bide jabego publikora integratzea ahalbidetzeko.

Komeni da hitzarmen baten bidez obren burutze-baldintzak, kontrola, obren bururapeneko bilkura, agirien ematea, bermeak eta transferentzia modalitateak segurtatzea, zehaztuz lan hauek onuradunak soilik finantzatzen dituela, herriaren finantza parte-hartzerik gabe.

Herriko Kontseiluak, txostengilearen azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, gehiengoz, bederatzi boto aurka eta zero abstentzionistarekin:

ERABAKITZEN DU

1. artikulua – AH 55 eta AH 5 (partez) herriko lursailetan, zorra kontratuzko baten eratze-printzipioa onartzea, hauek bilduz:
*Igarobide zorra (oinezko/ibilgailuak);

*Lurpeko zorra "LORATEGI" operaziorako beharrezko sareen ezarpen, mantentze, konponketa eta berritzerako, "LORATEGI" operazioaren kokaguneari dagokion fundo nagusiarentzat, erantsitako kokapen planaren arabera.

2. artikulua – Zortasuna aldi baterako eta baldintza iraungikorpean ematen dela: zuzenbidez iraungiko da bidea publikoaren erabilerara bideratzen eta herriko bidesarean sailkatzen den egunean. Iraungitzea egiaztatzen duen egiazko akta bat erregularizatuko eta argitaratuko da, onuradunaren gastuz, iraungitze gertaera burutu bezain laster.

3. artikulua – Zortasuna dohainik ematen dela. Urririkakotasuna eragiketarako beharrezko ekipamenduen burutzeari lotutako herri interesak eta bidea herriko bidesarean geroago integratzeko itxaropenak justifikatzen dute.

4. artikulua – Erantsitako obren burutze eta transferentzia hitzarmena onartzea, "LORATEGI" operaziorako beharrezko bide eta sare obren burutzea eta transferentzia arautzeko xedearekin, eta bereziki:
*Onuradunak hartutako obra zuzendaritza;
*Onuradunaren finantzaketa bakarra (azterketak, lanak, kontrolak, DOE, bilketa, konponketak, bermeak), L.332-15 artikuluaren arabera;
*Agindu teknikoak, konformitate kontrola, obren bururapeneko bilkura eta erreserben altxatzeen baldintzak;
*Obren eta agirien emate modalitateak, publikoaren erabilerara bideratzeko eta geroko sailkapenerako.

5. artikulua – Auzapez jauna baimentzea:
*Zortasunaren egiazko egintza notariala eta bere argitalpenerako beharrezko edozein agiri sinatzeko;
*Obren burutze eta transferentzia hitzarmena eta bere eranskinak (planak, baldintza tekniko partikularren agiria) sinatzeko;
*Oro har, deliberamendu honen gauzatzerako beharrezko edozein izapide egiteko.

6. artikulua – Lanak bukatu ondoren, obren bururapeneko bilkura araberakoa eta zortasunaren iraungitzea egiaztatu ondoren, Bide Kodearen L.141-3 artikuluaren arabera bidearen herriko bidesarean sailkatzeko deliberamendu bat aztertuko dela.

7. artikulua – Deliberamendu hau argitaratuko eta Estatuaren ordezkariari igorriko zaiola, indarreko baldintzen arabera.

Eranskinak:
*P01 - Kokapen-plana / AH 55 – AH 5 lursailen plana
*P02 - Zorraren kokapen plana
*P03 – Lur plana eta zor plana
*P04 – Baldintza tekniko partikularren agiria
*P05 - Obren burutze eta transferentzia hitzarmenaren proiektua (bide eta sareak) eta bere eranskinak
*P06 – Zorraren eraketa dakarren egintza-proiektua.

Aurka bozkatu dutenak: Peio Etxeleku jauna, Jean-François Lacosta jauna, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Jean-Paul Alaman jauna, Amaia Beyrie anderea, Alain Boscq jauna, Xabier Heguy jauna.

ESKU-HARTZEAK

Philippe Bacardatz jaunak eragile pribatu batek jabego publikoan sare-lanak egiteko aukerari buruz galdetzen du.

Jean-Noël Magis jaunak zehazten du esku-hartzeak herriaren jabetza pribatuari dagozkiola, identifikatutako lursailetan, eta ez jabego publikoari.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak jabetza pribatu eta jabego publikoaren arteko bereizketari buruz argibideak eskatzen ditu.

Auzapez jaunak eta Jean-Noël Magis jaunak azaltzen dute herriaren jabetza pribatuak jabe pribatu batena bezalako kudeaketa dakarrela, denontzat irekia den jabego publiko kontra.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratzen du herriak jabe pribatu bat bezala jardun dezakeela bere jabetza pribatuan. Gogorarazten du proiektua gaur egun zalantza juridikoen menpe dela, bereziki obra geldialdia, indarrean diren errekurtsoak eta bukatu gabeko prozedura judizialak. Galdetzen du zortasunak baliozkotzea egokia den mandatuaren bukaeran, testuinguru ziurgabe honetan.

Auzapez jaunak adierazten du herria gaur arte emandako justizia-erabakietan oinarritzen dela, proiektuaren aldekoak, eta beste elementuak proiektuaren sustatzailearen eskumenean direla uste du.

Amaia Beyrie andereak gelan sartzen da.

Jean-Noël Magis jaunak zehazten du erabakiaren helburua dela obrak berriz hastea, baldin eta aldeko erabakia hartzen bada, beharrezko baimenak ziurtatuz.

Peio Etxeleku jaunak bere erreserbak mantentzen ditu, erabakia goizegikotzat joz oraindik abian diren prozeduren arabera.

Jean-Noël Magis jaunak adierazten du proiektuaren sustatzaileak bere operazioa segurtatzea aurreikusten duela, bereziki aseguruen bidez, aldeko erabakiaren kasuan jarraitzeko.

Philippe Bacardatz jaunak kontrako erabaki baten ondorioei buruz galdetzen du.

Auzapez jaunak adierazten du elementu horiek promotorearen erantzukizuna direla.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak proiektuaren sarbide eta zirkulazio-moduei buruz argibideak eskatzen ditu.

Jean-Noël Magis jaunak adierazten du hartutako eskemak Oihanburua bidetik sarbidea eta suhiltzaileen biribilgunerantz irteera aurreikusten duela, noranzko bakarreko printzipioarekin.

Peio Etxeleku jaunak eskema honen eraikitze-baimenarekiko konformitateari buruz galdetzen du.

Jean-Noël Magis jaunak zehazten du PLUan gordetako toki batek lotura hori ahalbidetzen duela. Adierazten du larrialdi zerbitzuei kontsulta egin zaiela, eta zerbitzu publikoen funtzionamendurako arrazoiengatik bide jarraipena lehenesten dela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak inguruko biztanleen zalantzak eta proiektuaren zirkulazio arloko argitasun eza azpimarratzen ditu.

Jean-Noël Magis jaunak zehazten du zortasunak jabetza pribatuan lanak burutzea ahalbidetzen duela, geroko sailkapen baten zain jabego publikoan.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak mugikortasun goxoetarako aurreikusitako egokitzapenei buruz galdetzen du.

Jean-Noël Magis jaunak adierazten du proiektu batek bizikleta bandak, oinezkoentzako bideak eta aparkalekuaren berrantolaketa aurreikusten dituela.

Philippe Bacardatz jaunak segurtasunari buruzko kezkak adierazten ditu, bereziki kirol-gunearen jendeketarekin lotuta.

Jean-Noël Magis jaunak gaur egungo mugak aitortzen ditu, eta adierazten du etorkizuneko egokitzapenek zirkulazioak segurtatzea xede dutela.

Philippe Bacardatz jaunak uste du herriak bere azpiegiturak proiektu pribatu batera egokitzen dituela, alderantziz orde.

Jean-Noël Magis jaunak adierazten du egokitzapenak proiektu eta erabileren arabera egokitzen direla.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak zirkulazio erronken aurreikuspen falta sentitzen du, baimenaren instrukzio bertatik.

Auzapez jaunak adierazten du erabakiak proiektua baldintzarik onenetan kokatzea xede duela. Bozkatzera pasatzea proposatzen du.

014 – Merkatu ez sedentarioa: araudiaren berrikustea.

DELIBERAMENDUA:

2023ko uztailaren 5eko deliberamenduaren bidez, Herriko Kontseiluak ostiral goizeko asteko merkatuaren araudiaren aldaketa bat onartu zuen. Gaur egun, beharrezkoa da ostiral goiz guztietan Chiquito karrikaren osotasunean herriak antolatzen duen merkatu ez-finko jatorrizkoaren funtzionamendu-modalitate eta baldintzak eguneratzea eta zehaztea, praktiken bilakaera kontuan hartzeko, merkatuaren antolaketa hobetzeko eta bere garapen ona bermatzeko.

Gogny jaunak, herriko kontseilari delegatuak, Herriko Kontseiluari azaltzen dio merkatuaren araudia berrikusteko proiektua, erakusketariei aplikagarri zaizkien arauak argitzeko eta

indarrean den arau-esparrua sendotzeko xedearekin. Proiektu hau 2026ko urtarrilaren 14ko bilkuran merkatu ez-finkoaren aholku-batzordeari aurkeztu zitzaion.

Proposatutako aldaketa nagusiak:
Berrikusitako arau proiektuak, bereziki, xedapen hauek aurreikusten ditu:
*Urte sasoiaren arabera bereizitako ordutegien ezartzea, uda- eta neguko ordutegiekin.
*Laborantza mozkinerako aurkeztu beharreko agiriak: laborariek MSA ziurtagiria aurkeztu beharra, etxalde buru gisa afiliatua dela eta bere jarduera nagusi gisa egiten duela egiaztatzen duena.
*Hiru erakusketari kategoria zehaztea, eskaintza komertzialaren irakurgarritasun hobea eta tokien kudeaketa egokiagoa ahalbidetzeko.
*Bi hondakin-utzi puntu onartzea, gunearen garbitasuna eta merkatuaren jardueratik sortutako hondakinen kudeaketa hobetzeko.
*Erakusketari guztientzat, merkatuaren iraupen osoan, hustetik biltzea bukatu arte, jantzi zuzen eta egokiaren beharraren gogoraraztea.

Aldaketa hauen xedeak:
*Merkatuaren antolaketa eraginkorrago eta harmoniatsuagoa bermatzea;
*Osasun, ingurumen eta lanbide arauen errespetua bermatzea;
*Astean janari merkatuaren erakargarritasuna eta kalitatea zaintzea;
*Eta erakusketari guztiei aplikagarri zaien esparru erregulatzailea sendotzea.

Herriko Kontseiluak, txostengilearen azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU ostiral goizeko janari merkatu ez sedentarioaren araudiaren berrikuspena, erantsia;

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna araudi aldatua aplikatzeko eta bere aplikaziorako beharrezko xedapen guztiak hartzeko.

ESKU-HARTZEAK

Philippe Bacardatz jaunak merkatuaren tokien koherentziari buruz galdetzen du, gorriz eta berdez markatutako eremuen artean aldaketak ikusiz.

Jean-Pierre Gogny jaunak adierazten du doitzeak erakusketarien aldaketa bereziei dagozkiela, "tetris" antolaketa logika batean, eremu orokorra jarraikia mantenduz. Zehazten du araudiak funtzionamendu onaren arauak ere integratzen dituela, bereziki erakusketarien jantziari dagokionez, jendetasun eta higiene arrazoiengatik. Adierazten du arau hauek herriko agenteek araudia argi aplikatu ahal izateko sartzen direla.

Philippe Bacardatz jaunak erakusketarientzako igurikatze zerrendarik ba ote den galdetzen du.

Jean-Pierre Gogny jaunak eskaeren existentzia baieztatzen du, eta zehazten du tokien kudeaketa merkatuaren arduradun den herri poliziak bermatzen duela.
Adierazten du toki hutsak birresleitzen direla produktu-motaren eta eskaintzaren aniztasunaren arteko oreka zainduz.

Didier Irastorza jaunak zehazten du arreta berezia jartzen dela merkatarien aniztasunean, bereziki gazna bezalako produktu mozkinen kontzentrazio gehiegizkoa saihesteko. Urteko erakusketarien lehentasuna sasoikoen aldean ere azpimarratzen du.

Philippe Bacardatz jaunak dendaurreetan erakusketariak instalatzeko arauei buruz galdetzen du.
Jean-Pierre Gogny jaunak adierazten du kokapenak jabego publikoaren errespetuan eta kontzernitutako merkatariekin adostuz egiten direla.

Didier Irastorza jaunak zehazten du merkatariak, orokorki, merkatuaren presentziaren alde direla, jarduera sortzen baitu, dendetarako sarbidea blokeatu ez dadin baldintzapean.

Amaia Beyrie andereak merkatuaren kari zirkulazioaren erregulatzeari buruz galdetzen du.

Jean-Pierre Gogny jaunak adierazten du segurtasun mekanismo bat abian dela, karrika batzuk aldi baterako hestea ahalbidetzen duten zutabe mugikorren ezarpenarekin.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak heste hauek kontzernitzen dituzten eremuei buruz argibideak eskatzen ditu.

Jean-Pierre Gogny jaunak Chiquito karrikaren eta inguruko sarbideen hestea eta zirkulazio segurtuaren eremuak zehazten ditu. Adierazten du mekanismo honek ez duela Trinquet karrika hunkitzen, hura merkatuaren esparrura mugatua baita.

Auzapez jaunak eztabaida hesten du, gogoraraziz onartutako esparrua merkatuaren gogoeta eta segurtasunerako egungo markoa dela.

015 – Aisialdi zentroa : San Mixel Garikoitz kolegioko gelen esku uztea.

DELIBERAMENDUA:

Auzapez jaunak gogorarazten du eskolaz kanpoko oporraldietako jardueren kari, aisialdi zentroak (Aterpe Gabeko Aisialdi Zentroa) kanpoko kirol jarduerak proposatu nahi dituela. Hala ere, Kanboko herriak, "Curutchague" lehen mailako eskola publikoan kokatutako aisialdi zentrotik hurbil, ez du egitura erdi-irekirik, hala nola aterpe edo ezkerreko paretarik, eguraldi baldintzek eragindako babeserako.

Herriak, beraz, "O.G.E.C. Kanbo"ri (Santa Mari Eskola – San Mixel Kolegioa deitutako Irakaskuntza Katolikoaren Kudeaketa Erakundea), gelen kudeaketaz arduratzen dena, dei egin dio, eskolaz kanpoko harrerak behar dituen lokalen eskuragarritasuna eskatzeko, izaera kultural, kirol, sozial edo sozio-hezitzailea duten jarduerak antolatzeko, hasierako edo etengabeko formazio beharretarako erabiltzen ez diren orduetan edo aldietan (Hezkuntza Kodearen L.212-15 artikulua).

Hitzarmen-proiektu bat, 2026ko urtarrilaren 1etik aplikagarria, erantsia da. San Mixel Garikoitz Kolegioaren barnean kokatutako gelen zati baten erabilera irekitzen dio aisialdi zentroari, honela zehaztuta:
*Aterpe gisa erabiltzen den ezker pareta (450 m²);

*Ondoko komunak (30 m²);
*Ezker paretaren aitzinean kokatutako korralearen zati bat (620 m²);
*Aterpera etortzeko oinezko bideak (400 m²);
*Guztira 1.500 m²ko azalera;
Aisialdi zentroaren funtzionamendu aldietan, hots, A eremuko negu, udaberri eta udazkeneko opor txikietan, baita udako opor luzeetan ere.

Herriko Kontseiluak, Auzapez jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, adierazitako botoen aho batez:

ONARTZEN DU erantsitako gelen okupazio hitzarmenaren proiektua, San Mixel Garikoitz Kolegioko gelen aisialdi zentroari eskuragarritasunari buruzkoa, 2026ko urtarrilaren 1etik;

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna aipatu hitzarmena sinatzeko Kanboko Elkarte Sindikatuarekin eta Kanboko OGECekin, aipatu oporraldietan eskolaz kanpoko jarduerengatik aisialdi zentrora joaten diren haurrentzat.
Corinne Othatceguy andereak ez du bozketan parte hartu.

ESKU-HARTZEAK

Auzapez jaunak gogorarazten du zenbait pertsonak ez dutela bozketan parte hartzen. Zehazten du Corinne Othatceguy anderea, hitzarmenean agertzen den erakundeko lehendakaria denez, ez duela bozketan parte hartu.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak elkarte sindikatuaren eginkizunari buruz galdetzen du.

Auzapez jaunak zehazten du ez dela elkarte sindikatu bat, baizik eta kudeaketa erakundea, hots, OGEC.

016 – Kanboko Izarra : ohiz kanpoko diru laguntza baten emaitea.

DELIBERAMENDUA:

XEDEA: Aldageletako berreraikitzarako ekipamendu diru laguntza berezi baten emaitea Futbol Klubari eta finantza hitzarmenaren onartzea.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari azaltzen dio,

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, eta bereziki L.1611-4 eta L.2511-1 eta ondoko artikuluak;

Herriko politikak kirol-praktika aktiboki bultzatu eta tokiko elkarte-sarea sendotu nahi ditu, ongizatea, inklusioa eta herriko dinamismoa laguntzeko. Logika honetan, kirol klubei ematen zaien laguntzak bizitasun soziala eta biztanleen garapena laguntzen du.

Kanboko Izarra Futbol Klubaren esku jarritako muntadurek, bereziki aldagelek, Kanboko Elkarte Sindikatuak (Elkarte Diozesanoa) eskainiak, gaur egun zahartasun egoera bat aurkezten dute, erabiltzaileek espero dutenari erantzuten ez diona.

Ezinbestekoa da lizentziadunei higiene eta segurtasun baldintza egokiak bermatzea, indarreko arauen araberakoak, beren babesa eta erosotasuna kirol praktikan bermatuz. Eskaera hau osasun publikoaren eta erantzukizunaren beharrari erantzuten dio.

Kanboko Izarra Futbol Klubak, Kanboko Elkarte Sindikatuaren lankidetza eta baimenarekin, berreraikitze lanen obra zuzendaritzan engaiatuko da. Lankidetza honek proiektuaren kudeaketa eraginkorra bermatuko du, onuradun eta bazkideen itxaropenak errespetatuz, eta Kanboko Izarrari aldagela horiek gutxienez hamar urtez erabiltzeko bermea ziurtatuz.

Herriko Kontseiluak, Auzapez jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU Kanboko Izarra Futbol Klubari, gehienez 40.000 €ko (berrogei mila euro) ekipamendu diru laguntza baten emaitea.

ZEHAZTEN DU diru laguntza hau bakarrik Kanboko Elkarte Sindikatuaren zelaian kokatutako aldagela eta etxaldearen berreraikitze lanetara esleitua dela.

ONARTZEN DITU erantsitako helburu eta baliabide hitzarmenaren baldintzak, Herriaren eta Futbol Klubaren artekoa, ordainketa erak eta elkarrekiko engaiamenduak zehazten dituena, tartean lekuen erabiltzearen aldaketaren kasuko itzultze klausula.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna edo bere ordezkaria aipatu hitzarmena eta dozier honi lotutako edozein agiri sinatzeko.

DIO gastua aurrekontu nagusiaren inbestimendu atalean sartuko dela, 204. kapitulua "Emandako ekipamendu diru laguntzak".

ESKU-HARTZEAK

Peio Etxeleku jaunak proiektuaren kari emazteen aldagelak kontuan hartzeari buruz galdetzen du, aldean diren laguntza baliabideei erreferentzia eginez.

Auzapez jaunak adierazten du egokitzapen horiek aurreikusiak direla.

Didier Irastorza jaunak zehazten du proiektuak lau aldagela dituela, hauen artean emazteen aldagela bereiziak, baita dutxak ere, arauzko betebeharren arabera.

Auzapez jaunak adierazten du aurreikusitako dutxa kopurua 26koa dela, zehaztuz kopuru hau aurrekontu mugen eta beharren arabera egokitu ahal izanen dela.

Philippe Bacardatz jaunak herriko inbestimenduaren truke hartutako 10 urteko iraupenari buruz galdetzen du.

Auzapez jaunak adierazten du iraupen honek herriaren finantza parte hartzea justifikatzea ahalbidetzen duela, ekipamenduen gutxieneko erabilera bermatuz.

Philippe Bacardatz jaunak azpimarratzen du iraupen honek elkarteari epe hori gainditzean bere antolaketa aldatzeko aukera eman diezaiokeela, mugarik gabe.

Auzapez jaunak zehazten du iraupenak diru laguntzaren trukeko erabilera obligazio minimo bat osatzen duela.

Didier Irastorza jaunak adierazten du 10 urteko iraupenak etorkizuneko bilakaera ziurgabeei lotutako arriskuak mugatzea ahalbidetzen duela, engaiamendu luzeegiak saihestuz.

Auzapez jaunak zehazten du iraupen hau aholkularitza juridikoak kontuan hartuz definitu dela, bereziki erabili ezaren kasuko itzultze arriskuei dagokienez.

Philippe Bacardatz jaunak zelaiaren erabilerari buruzko hitzarmenik ba ote den galdetzen du.

Auzapez jaunak adierazten du oraindik ez dela finantzaketarik egin zelaiari dagokionez, baina alokatze kontratu luze bat gogoetan dela. Zehazten du lan hori aipatutako elkarte sindikatuarekin egiten ari dela, gune osoa barne hartzen duen ikuspegi global batean. Auzapez jaunak adierazten du erak geroago zehaztuko direla, klubaren aldetik zelaiaren inbestimendu eta erabilera ahalbidetzeko. Bozkatzera pasatzea proposatzen du.

017 – GEUZ: 2026ko diru-laguntzaren aitzinatzea.

DELIBERAMENDUA:

Aizpuru andereak, auzapezordeak, gogorarazten du 2026ko otsailaren 23ko idatzi baten bidez, GEUZek 60.000 €ko abantzu diru-laguntza bat eskatu duela, 2026ko herriko diru-laguntza ukan arte.

Herriko Kontseiluak, Aizpuru andereren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU 2026 urterako GEUZen aldeko diru-laguntza abantzu baten emaitea, 60.000 €koa.

ZEHAZTEN DU gastua aurrekontu nagusiaren 657363 artikuluan sartuko dela, 65. kapitulua.

018 – Korrika 2026: Herriaren finantza parte-hartzea.

DELIBERAMENDUA:

Auzapez jaunak azaltzen du:

Korrika helduentzako euskara ikastaroen federazioak, AEKk, antolatzen duen erreleboko lasterketa handia da, euskararen irakaskuntza laguntzeko eta sustatzeko, baita euskaldunen kopurua handitzeko ere.
Korrikaren 24. edizioa 2026ko martxoaren 19an, ostegunean, hasiko da Atarratzen eta 2026ko martxoaren 29an, igandean, bukatuko da Bilbon, 2.500 kilometro baino gehiago zeharkatu ondoren.

Aldi honetan, lasterketak Kanboko herria zeharkatuko du 2026ko martxoaren 24an, asteartean, 17:30etan.

Ekitaldi kultural eta linguistiko garrantzitsu honen kari, herriak euskararen helduentzako irakaskuntzaren garapenaren aldeko babesa adierazi nahi du finantza parte-hartze baten bidez, honela adieraziko dena:

*Herriaren izena eta logotipoa agertuko diren "Korrikalari" propaganda euskarri baten erosketa, 150 €tan;

*Herriko Etxearen izenean Korrikaren kilometro bat erostea, 400 €tan.

Parte-hartze hau euskararen aldeko ekintzak babesteko herriko borondatearen barne kokatzen da, eta ekitaldi elkartzaile honen arrakastari laguntzeko.

Herriko Kontseiluak, Auzapez jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU Herriaren finantza parte-hartzea Korrika 2026an, gorago adierazitako baldintzetan.

ZEHAZTEN DU gastua aurrekontu nagusiaren 65748 artikuluan sartuko dela, 65. kapitulua.

019 – Goi mailako irakaskuntzako herriko dirulaguntzen emaitea, 2025-2026 ikasturtearentzat.

DELIBERAMENDUA:

Irastorza jaunak, auzapezordeak, gogorarazten du Hiriak urte askotan zehar finantza laguntza eman diela baxoaren ondoko ikasketak jarraitzen dituzten Kanboko ikasleei, LMD ikasketa-bide baten edo Estatuko bekak jasotzeko gaitasuna duen formazio baten kari.

Laguntza hau herriko goi-mailako ikasketetarako diru laguntzen forman ematen da, Kanboko herrian bizi diren familien seme-alabei ematen zaizkienak.

Argibide gisa, aitzineko ikasturtean, 18 dozierrek aldeko erabaki bat ukan zuten, orotara 8.117 €.

Herriko diru laguntzak zuzenduak dira:

*28 urtetik beherako ikasleei;
*Irizpide sozialetan oinarritutako Estatuko goi-mailako ikasketa-beka (BCS) ukaten dutenei.
Herriko diru laguntzaren zenbatekoa ikasleari emandako Estatuko bekaren %15aren araberakoa da.
"Eskola – Haurtzaroa – Gazteria" batzordeak, 2026ko otsailaren 10ean bildua, 2025-2026 ikasturterako aurkeztutako 20 herriko diru laguntza eskaerak aztertu ditu.

Emaite irizpideak eta aurkeztutako dozierrak kontuan hartuz, batzordeak 20 eskaerak guztiak onartzea proposatzen du, orotara 7.125 €k.

Dagozkien kredituak 2026ko aurrekontu nagusian sartuko dira.

Herriko Kontseiluak, Irastorza jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU 2025-2026 ikasturterako 20 herriko goi-mailako ikasketa diru laguntzen emaitea, orotara 7.125 €.

020 – Saltegi kudeatzailearendako diru laguntza eskaera.

DELIBERAMENDUA:

Xedea: Merkataritza berriz bultzatzea – Estrategia eta ekintza planaren onartzea – Merkataritza eta ofiziale kudeatzaile baten lanpostu baten sorrera – ANCTri eta Lurraldeen Bankuari kofinantzaketa eskaera.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari azaltzen dio:

Herri barnearen berpiztearen eta merkataritza eta ofiziale sarearen berriz bultzatzeaaren politikaren kari, herriak 2025ean bi faseko proiektu bat abiatu du:
1.fasea: merkataritza diagnostiko sakon baten burutzea, biztanleengan, kuristengan eta profesionalengan egindako ikerketetan oinarritua;
2.fasea: ekintza-plan baliagarri baten garapena eta abian jartzea, bereziki merkataritza animazioaren egituratzea, merkatariei laguntza ematea, hutsuneen aurkako borroka, eta merkataritza, turismoa eta ur-onetako giltzadura hobetzeko.

Diagnostikoaren ondorioek ekintza herriko egituratu eta partaidetzako baten interesa baieztatzen dute: ekonomia turistiko eta termalaren pisua, herri barnean kontzentratutako eskaintza komertziala, eskaintzaren aniztea, lurralde-marketinan eta animazioetan adierazitako itxaropenak, baita eragileak federatu (merkataritza elkarte barne) eta hurbileko koordinazio bat ezarri beharra ere.

Fase baliagarri honen zuzendaritza eta abian jartzea bermatzeko, Merkataritza eta ofiziale kudeatzaile bat, garapen ekonomikoaz arduratua, izendatzea proposatzen da, bere eginkizunak lanbide erreferentzialei egokituz (ekintza plan baten egitea, eragile sarearen animazioa, interfaze rola, koordinazioa eta jarraipena).

Ikusirik:
*Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, bereziki L.2121-29 artikulua;
*Funtzio Publikoaren Kode Orokorra, bereziki L.313-1 eta L.332-24tik L.332-26ra artikuluak;
*Lurralde Kohesiorako Agentzia Nazionalak (ANCT) eta Lurraldeen Bankuak eramaten duten merkataritza kudeatzaileen lanpostuen elkar finantzaketa mekanismoa;
*Herriaren aurrekontua;
*Erantsitako agiriak: merkataritza-diagnostikoa (1. fasea) eta eginkizun orria / eginkizunaren ezartzea (2. fasea).

Kontuan hartuz:
*1.fasean egindako diagnostikoan oinarritutako eta ekintza plan baliagarri batean garatutako merkataritza eta ofiziale berriz bultzatze estrategia herriko bat formalizatu eta onartu beharra;
*Ekintza planaren aplikazioa, partaideen mobilizazioa eta emaitzen jarraipena epe luzean bermatzeko lurralde animazio eta proiektu zuzendaritza funtzio bat izateko beharra;
*Herriarentzat, ANCTk eta Lurraldeen Bankuak proposatutako elkar finantzaketa eskatzearen interesa, lanpostuaren ordainketa kostuaren finantzaketan laguntzeko;
*Organo deliberatzaileari dagokiola herriaren lanpostuak sortzea eta lanpostuaren ezaugarri funtsezkoak finkatzea.

Herriko Kontseiluak, Auzapez jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

ONARTZEN DU merkataritza eta ofiziale berriz bultzatzearen herriko estrategia, merkataritza diagnostikoan (1. fasea) oinarritua eta eginkizun-orrian / ekintza planean (2. fasea) garatua, deliberamendu honi erantsiak. Estrategia honek honakoak xede ditu: (i) merkataritza sarearen federazioa eta animazioa, (ii) laguntza, instalazio eta eskaintzaren aniztu ekintzen aplikazioa, (iii) merkataritza hutsunearen aurkako borroka, eta (iv) merkataritza-turismo- ur-onetako arteko sinergien eta herri barnearen erakargarritasunaren sendotzea.

ONARTZEN DU elkar finantzaketaren balioztatzetik goiti, "Merkataritza eta ofiziale kudeatzailea - Garapen ekonomikoaz arduratua" izeneko denbora osoko (35/35) lanpostu ez-iraunkor baten sorrera, "Merkataritza berriz bultzatzeko ekintza plana" proiektuaren zuzendaritzarako. Lanpostu hau bi urteko aurreikusitako iraupenerako sortzen da, proiektuaren iraupenari dagokiona, eta proiektu kontratuari aplikagarri diren xedapenen mugetan egokitu ahal izanen da.

Kontratatze erak: Lanpostu hau Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-24 artikuluan oinarritutako agente kontratu bidez beteko da (proiektu kontratua). Kontratuak lanpostuaren hasiera data, iraupena, eginkizunak eta esku-hartze eremua (herriko merkataritza poloen guztiak) zehaztuko ditu. Lurralde aginteak finkatuko du ordainsaria, testuetan ezarritako baldintzetan, eta kontuan hartuko ditu, bereziki, hautagaiaren eginkizunak, kalifikazioa eta lan-esperientzia. Lanpostuak 395 eta 678 arteko indize gehitu bati dagokion soldata izan lezake.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna lanpostuaren elkar finantzaketa eskaera bat aurkezteko ANCTri eta Lurraldeen Bankuari, eta, hala badagokio, beste edozein finantzatzaile publiko edo pribatuari jotzeko, mekanismoak aurreikusitako muga eta kumulu arauak errespetatuz.
Herriak lanpostuaren finantzaketa hondarra bermatzea hitzematen du, eta beharrezko frogagiri guztiak, lan kontratua barne, transmititzea, diru deialdiaren momentuan.

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna elkar finantzaketaren finantza hitzarmena, harekin lotutako edozein agiri, eta agentearen kontratazio-kontratua sinatzeko, eta deliberamendu honen gauzatzeko beharrezko izapide guztiak egiteko.

ZEHAZTEN DU lanpostuaren ordainsari eta dagozkion kargei beharrezko kredituak herriaren aurrekontuan sartuko direla, 012. kapitulua (langile-gastuak) eta dagozkion ezarpenetan.
ESKU-HARTZEAK

Zerbitzuen zuzendari nagusia zehazten du finantzaketak lanpostuaren %50i dagokiola, urtean 20.000 €ko mugan, bi urteko iraupenerako. Adierazten du finantzaketa hau Lurraldeen Bankuak bermatzen duela.

Auzapez jaunak zehazten du bide honek mekanismo honetan kokatzea xede duela. Adierazten du herriak, hala badagokio, aitzinetik berarekin lan egin duen eta gogobetetasuna eman duen pertsona bat lehenetsiko duela.

Beste inolako ohartarazpenik ez da formulatzen.

Auzapez jaunak bozkatzera pasatzea proposatzen du.

021 – Langileak : Agente bat EHEren esku uzteko hitzarmena.

DELIBERAMENDUA:

Auzapez jaunak gogorarazten du 2026ko otsailaren 12ko posta elektroniko baten bidez, Euskal Hirigune Elkargoak (EHE) Kanboko herriko langile baten eskuragarritasunaren berritzea eskatzen duela, EHErentzat, kanpoko igerilekuak eta aldagelak garbitzeko eginkizunak betetzeko, baita Elkargoko Kanboko igerilekuaren mantentze teknikoa ere, 2026ko denboraldian zehar.

Eskuragarritasun honen baldintzak honakoak dira:

*Langile baten eskuragarritasuna EHErentzat, 762 orduz, 2026ko apirilaren 20tik 2026ko urriaren 19ra bitartean;

*EHEk Kanboko herriari itzuliko dio herriak ordaindutako ordainsari eta nagusien kotizazioen zenbateko denetara, EHErentzat egindako lan denboraren arabera.

Herriko Kontseiluak, Auzapez jaunaren azalpena entzun ondoren eta deliberatu ondotik, aho batez:

BAIMENTZEN DU Auzapez jauna herriko langile baten EHErako erantsia den eskuragarritasun hitzarmena sinatzeko, baita erabaki honen kontuan hartzeko beharrezko edozein agiri ere.

Informazioak.

Auzapez jaunak adierazten du ez duela informaziorik ez orotariko gaiarik aurkezteko. Kargualdiaren azken bilkura bururatzen du, ordezkari guztiei — gehiengokoei zein oposiziokoei — eskerrak emanez, herriaren zerbitzurako engaiamenduagatik, batzuetan adierazitako desadostasunak gorabehera. Esker hauetan herriko-zerbitzuak ere sartzen ditu, agintaldi osoan zehar izandako mobilizazioa azpimarratuz, bereziki osasun-krisialdi eta eguraldi-gertaeretan.

Auzapez jaunak parte-hartzaile guztiei eskerrak ematen dizkie eta bilkuraren bukaeran momentu atsegin bat partekatzea proposatzen du.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak ordezkariei eskuragarri jarritako tauletak itzultzeko gonbita luzatzen die.

Gai-zerrenda agortuta, Auzapez jaunak Herriko Kontseiluaren bilkura hesten du, 21 ordu eta 15 minututan.

Joana LACARRA
Bilkuraren idazkaria

Christian DEVÈZE
Kanboko Auzapeza